

Rocka puntua!

ezinbesteko liburua egungo bertsolaritza eta rocka ulertzeko



ISBN: 978-84-9172-014-0 • 240 or. • 18 €

Zestoa, 1964ko martxoak 19. Bertso saioa Joxe Lizaso, Joxe Agirre, Basarri eta Uztapiderekin. Halako batean, Joxe Mari Iriondo gai-jartzaileak puntua jarri dio Uztapideri: «ikasi al dituzu rock and roll eta twist?». Uztapidek kopeta zimurtu du: oin deserosoak baino zerbait gehiago dira hitz arrotz horiek, bizimodu txarrarekin lotuta daude, atzerritarrek ekarritako ohitura berri gaiztoekin.

Zer ez da aldatu ordutik hona! Uztapidek imajinatu ezineko parabola osoa gertatu da berrogeita hamar urteotan: lehenbizi euskara sartu zen rock eta twist izeneko lurralde arrotzetan, ondoren bertsoa barneratu zen hor barruan, eta behin bertsoa doinu horietan ezkutatuta, pop rock kulturako abesti bakan batzuk bueltan etorri dira bat-bateko bertsolaritzara.

Bertsoa eta rockaren arteko harremanari buruzko saiakera duzu eskuartearen, irakurle: batzutan kronika itxuraz, bestetan fikzioarekin jolasean, abestietatik bertsoetara eta bertsoetatik abestietara saltoka dabilen hausnarketa-lan irudimentsua da honakoa.

Hitzaren kirol nazionala da bertsolaritza, erritmoaren alberdania internazionala rocka.

Hitzaren inguruan dantza egiten du batak, erritmoaren inguruan besteak.

Hitza eta erritmoa: hausnarketa ugaritarako ematen duten bi su.



«Saiakera akademiko tristeez kokoteraino ez, goraxeago nagoelako, iruditzen zait estilo aldetik lan eredugarria dela; irakurtzeko gozagarriak izan behar dute lanek. Liburu hau neurritz kanpoko entusiasmaz idatzita dago, eta eskertzen da, gaurko prosa tristearen panoraman.»

[Joxerra Gartzia. *Berria*. 2017-10-20]

«Bertsolaritza, rocka, hizkuntza hautuak, linuru aparta, zehatza eta era berean, irakurterraza. Badago idazle eskua, badago tesia eta badago ikerketa ere.»

[Unai Iturriaga. *Twitter*. 2017-11-17]

«Irazuk Basarri ekarri du gogora bere entseguan, eta hark eta bere sasoiko askok euskara ezerk "kutsatu" ez zezan izandako izu eta prebentzio jarrera sutua, beste batzuek euskal ye-ye-en kontra egin zuten bezalaxe. Alferrikakoa izan zen ahalegina, hala erakutsi du denboraren pasoak.»

[Iker Barandiaran. *Gaur8*. 2017-11-20]

«Tesi mamitsu, dokumentazio lan handi eta idazkera oneko liburua da Rocka puntua!»

[Igor Elortza. *Facebook*. 2017-12-18]

«Bertsoaren eta rockaren arteko harremanak azken hiru hamarkadotan emandakoa –asko– bikain bildu du Alberto Irazuk. Bere garaian, bertsoaren gorputza trantsizioan jartzeko –mugitzeko– balio izan zuen rockak.»

[Gorka Erostarbe. *Berria*. 2017-11-12]

«Bertsoa eta rocka uztarri berean lotu ditu Irazuk, bakoitzaren kronologia osatuz eta haursnarketa eginez. Ikerketa lan mardula egin du.»

[Inaxio Esnaola. *Irutxuloko Hitza*. 2017-12-8]

«Ez dira ugari musikari buruz euskaraz irakurtzeko izaten ditugun aukerak, eta are gutxiago euskal musikari buruzko liburuak. Halakoak irrikaz hartzen ditugu zaleok, are gehiago Irazurena bezalako lan mamitsuak direnean.»

«Dokumentazio lan handia eginez eta idazkera bizia erabiliz, rockaren eta bertsoaren arteko uztartzearen kronika ederra osatuz harago joan da egilea, hainbat gai zeharkako eta interesgarri ukituz –alderdi performatiboarekin edota hizkuntzaren hautuarekin lotutakoak, besteak beste.»

[Jon Eskisabel. *Jakin*, 223. 2017-12]

